

GALLURRA

Mendiaren gaña amets egin dot.
Arranoak dabiltz goian
Lurra, zugatz, gorago arkaitzak...
Egazu ba'nei ganian.

Euzkadiko lurraren ederra...!
Gallurretan., barriz, ames...
Elkarri eupaka dagoz gañak.
gorantz eiteko joranez.

Mendi barnean jaio nintzan,
ama lurraren oiñian,
beti, eguzki billa nenbillen
egun sentia zanian.

Euskal baratzak, euskal mendiak,
maitatu alan nenkusan;
Euzkadiko edertasunean
nere gogoa batu zan.

Lur, solo, ibaiak eder ziran,
dardar negian bidean;
noiz, elduko gain argiTa
eguzkiaren antzean.

Ibai ondoan, sarri, enbata,
Ni a urratu ezinik.
Beti gañera igoteko garren
euskal lurrez bat eginik.

Mendi egalez lañoak narraz,
indarka nabil uxatzen...
biotz garrak ez dau nai ikusi
aritz lerdetik zapaltzen.

Negua da, oraindik, euritan.
Narras-marras denporala.
Gaillurrera igon nai mutillak
ta uretik dator kresala.

Indarka dabil nere gogoa
laño artean gora,
mendi gaña eguzkitan dago,
poza datorkit gogora.

Nere gaba ta nere goiza
egunsentian argitu...
illuna joan, lañoak urratuz
olermena indarbarritu.

Aurrean dakuts mendi gallurra
lur maitasun, eriotan,
ain zara eder Euskalerrria
garrezko zorabiotan.

Mendi gañean zelaia dago,
egazka doa aizea,
urregorrizko argia, goxo,
gogoa daukat ernea.

Euzkadi zakust olermenetan
zeruaren garraziaz,
Aberririk ederrena dago
maite miliaren graziaz.

Eguzkiak urrea dario,
izadi oro argitan,
gora goraka dabil gogoa
olerkiaren bizitan.

Lañoak, berez, deuseztu dituk
eguzkia etorkeran,
esna adi gogoaren barrena,
olermena biztukeran.

Geiago ez dok lorik egingo
olerkiaren sormena,
ederregia duk izadia
geldi izteko oermena.

Mendi gaña maitagarria duk
olerki gallur bezela,
guztia dago urre gorritan
argia irunzten dabela.

Nere olermen, eder-zalea,
ots egiok argiari,
beti, mendi gañez bizitzeko
ots, maite-min ederrari.

Paulin

BITXORI MARGOLARIA

Margo agerpena ikertu neban
San Nicolas en aurrian
atzo gabian, ta ondiño daukat
edertasuna, goguan.

* *

Edertzalienen begi orrekaz
beituten dozu geure lurra,
ta gero oyalan itxiten dozuz
zeure biotzaren zatiak

Lauki bakotxa, bere marguaz,
da urre-gorritzko pitxia
dana loratsu, dana udabarri,
geure begien aurrian.

x

Euzko basterrak: Lemona, Gamiz,
Mundaka, Dima, Sukarrieta,
itxas-baketsu, kayen onduan,
ikusten dogu itxasua.

*

Indusi-atxak, abaden etxe,
Bernagoitia'ko torria...
So luzaroan... ezin aldendu
lauki batetik bestera.

* * *

Eskarrik asko, Bitxori, zeuri,
Ainbeste lauki ederrakaz
ikusten dogu, negua izanik,
Euzkadi'ren udabarria.

UTARSUS